

# Inbertsio historikoa

2006ko ekitaldi ekonomikoko emaitzak oso onak izan ziren MCC Taldearentzat. 2007rako aurreikusitakoak, berriz, hobeak izango dira eta 750 milioi euroko irabaziaz lortuko ditu, iaz baino %10 gehiago. Gainera, 1.350 milioi eurotara iritsiko den inbertsio historikoa egingo du eta, internazionalizaziora eta Eroskira bideratuko du.

DANIEL UDALAITZ

**MCC TALDEAK** aurten egingo duen inbertsioa "historikotzat" jotzen da eta, 1.350 milioi euro inbertituta, bere errekor guztiak ondu ditu, iaz baino %15 gehiago inbertituko baitu. Kopuru horren erdia, gutxi gorabehera, Eroskik bereganatuko du. Gainontzeak finantza taldearen artean banatuko da; Euskadiko Kutxa buru izango da. Hori ondorioztatzen da Taldeko zuzendaritzak esandakotik; izan ere, 2006an ondorio ekonomiko onak izan zituzten eta aurreratu dute haien aurreikuspenen arabera aurten emaitzak hobeak izango direla. Uztailaren 31n, Taldearen zuzendaritza aldatuko dute. Egungo lehendakariorde Jose Mari Aldekoa lehendakaria izango da. Ardura hori, orain arte, Jesus Catiak izan du, baina erretiroa hartuko du.

MCCk iaz 13.390 milioi euroko fakturazioa izan zuen, aurreko urtean baino %13 gehiago; eta 677 milioi euro irabazi zituen. Horrek esan nahi du %24,2 hazi direla irabaziaz. 83.600 langile zituen iaz, eta, horietatik, 40.000 langilek baino gehiagok Hego Euskal Herrian egiten zuten lan. Aurten, 14.000 milioi euroko fakturazioa eta 750 milioiko irabaziaz izatea kalkulatu da.

FAGOR



Fagor Etxetresna Elektrikoak-ek Txinan, Errusian eta Magreben indartsu sartzeko intentzioa du.

## Nazioartekotzen eta enplegua sortzen

Duela zenbait urtetik hona MCCk erabiltzen duen internazionalizazio politikak aurrera jarraituko du. Beste herrialdeetan, 65 lantegi ditu eta hamabi proiektu baino gehiago aztertzen ari da. Ekitaldi ekonomiko hone-

tan, Ekialdeko Europan, Asian eta Amerikan beste zortzi proiektu jarriko dira abian. Berehalako etorkizunean, Errusia eta India izango dira apustu internazional handietakoak.

Haren beste apustua, tokiko enplegua sortzearena, datozen hilabeteetan dinamizatzeko da. Datu errealek uste sendo hori bermatzen dute, MCC munduko liderra baita lankidetzetan. Horretarako, ekimen berriak abiaraziko ditu osasunaren esparruan, energia berriztagarrietan eta aeronautikan. Trenbideen negozioaren aldeko apustua ere ezin da alde batera utzi. Baliteke CAFekin edota sektoreko beste enprekin lankidetzan aritzea. Aurreko ekitaldi ekonomikoan, MCCk sustapen zentro bat jarri zuen martxan eta 300 lanpostu inguru sortuko dituen bost industria proiektu berri jarri zituen abian. Gogoratzekoa da MCCk 2006an, 1.321 lanpostu sortu zituela Hego Euskal Herrian.

MCC Taldeak dituen 83.601 lanpostuak honako leku haue-  
tan daude banatuta: %43,9 Hego Euskal Herrian, %37,3 Espainiako Estatuko gainontzeko lekuetan eta %18,8 munduko beste herrialdeetan. Hegoaldean dauden lanpostuetatik, 36.698 Euskal Autonomia Erkidegoan daude eta 3.966 Nafarroan. Espainiako Estatuko gainontzeko lekuetan, hona-

## Fagorrek Errusian ere sartu nahi du

Fagor Etxetresna Elektriakoak MCCko enpresarik garrantzitsuenetakoa da, eta nolabaiteko krisia gairatzen hasi da Frantziako Brandt enpresa erosi ondoren; 12 milioi euroko irabaziekin amaitu du 2006a. Haren egoerak ona dirudenez, 2007ko ekitaldi ekonomikorako irabaziaz %80 gehitzea espero du. Espainiako eta Frantziako merkatuetan, lehenengo postuan dago, eta Europan, bosgarren taldea da. Nazioartean gehiago hedatu eta berrikuntza handiagoa lortzeko asmoa du.

Txinan indartzeaz gain, Fagorreko arduradunek Errusiako merkatuan indartsu sartzeari espero dute eta, gero Indian ere bai. Haien ustez, merkatu errusiarra konplexua da, baina oso irekia, eta gune garrantzitsuak ditu, hala nola, Mosku eta San Petersburg. Oraingoz, ez dago han ezartzeko egitasmorik, baina, dagoeneko, komunikazioaren eta merkataritzaren arloetan ari dira lanean. Txinako eta Errusiako proiektuak epe luzera gauzatzekoak dira, baina burubelari ari dira proiektu horietan lanean. Maroko ere ez da ahaztu

behar. Han, Euskal Herriko enpresak merkatu kuotaren %23 du eta, etorkizunean, Magrebe-ko beste herrialdeetara eraiki ditzake zubiak. Berrikuntzari dagokionez, Fagor nazioarteko erreferentzia da energia berriztagarrietan, eta, halaber, erosotasunean, Fagor Hometeken bidez egin dituen ekarpenengatik. Fagor Hometeketik, besteak beste, garbitzen eta lisatzen duen Driron edota zortzi kilogramoko garbigailua ateratu dira.

Hori guztia egiteko beharrezkoa da inbertsio handiak egitea. Orain arte, Fagorrek bere "finantza ekarpenean" sinetsi du, eta, ekarpen horiek bere gain hartuko lituzketenentzat, interes erakargarria eskaintzen dute. Egun, euriborra %4 baino altuagoa da, eta euriborra gehi %3,50 eskaintzen dute. Ondorioz, aipatutako ekarpenak %7 inguruko errentagarritasuna ematen ari dira une hauetan. Aldizkari honek eskuratu ahal izan dituen informazioen arabera, epe laburrean, merkatuari "finantza ekarpen" mota horietako beste eskaintza bat egitea pentsatzen ari da Fagor.

ko eremu hauetan sortu zituen lanpostu gehien: Galizia (4.429), Andaluzia (4.021), Balearrak (3.090), Madril (2.212), Katalunia (2.138) eta Gaztela eta Leon (2.075).

### Euskadiko Kutxa: sarea handitu eta higiezinaren negozioa

Euskadiko Kutxak, 2006an, 176 milioi euro irabazi zituen eta, ondorioz, aurreko urtean baino %17,1 gehiago irabazi zuen MCCren banketxeak; bere bulegoen sarea eta higiezinaren negozioa handitu nahi dute aurtengatik. 2006an, 17 bulego ireki zituen, sei euskal lurretan eta gainontzekoak kanpoan; kanpoko sare hori, jada, bezeroen %20 da. MCCko beste enpresa den Lagun Arorekin batera, 2006an, Euskadiko Kutxak higiezinaren 13

proiektutan hartu zuen parte, hau da, 2.400 etxebizitzatan. Urteko hamar bat promoziotan hartu nahi dute parte, eta promozio horietako gehienak haren hedapen sarean daude, hala hipoteka negozioak horietan bermatzeko.

### Eroskik Caprabo erosi du

Eroskik Caprabo banaketa katea erosi berri du 1.125 milioi euroren truke –jabetzaren %75a–. Kataluniako, Nafarroako eta Madrilgo adarrak gehiago luzatuko ditu horrela. 2.348 establezimendu eta 47.000 langile izango ditu eta 8.000 milioi euroko fakturazioa. Capraboren erosketa kontuan hartuta MCCk 100.000 langile inguru ditu. Lehen aipatutako 83.600 horiei Capraboko 15.000 gehitu behar zaizkie. ■

## MATTEO JATETXEA



Ugaldetxo auzoa, 11  
20180 Oñartzun

Tel. / Faxa: 943 49 11 94

e-posta: [restaurantematteo@telefonica.net](mailto:restaurantematteo@telefonica.net)

web orria: [www.restaurantematteo.com](http://www.restaurantematteo.com)